TOKIKOM
txintxarri
1334. zenbakia 2016-07-18 Lasarte-Oria txintxarri.eus

6

Nely Carla Alberto Joko Olinpikoetara joateko aurredeialdian

4 Jaia

Santa Ana eguna ospatzeko ekintza bereziak

Uztailaren 26an, egun osoko ekintza egitaraua egongo da, baina aurretik ere izango da ekintzarik. Ttakun kultur elkarteak, Sendoki elkarteak, Aterpea Merkatari elkartea eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatu dituzte egitasmo ezberdinak. Igandean artisau azoka egingo da Okendo plazan. Honetan ohitura den legez, sukaldari bat omenduko da eta aurten Andoni Luis Adurizek jasoko du Cesar Bozal herritarrak bereziki egindako labana.

Giro beroa zertxobait freskatu zuten herriko haur eta gazteenek, Bruneteneako lorategian egindako ur jolasekin.

San Pedroen ostean, Karmenak!

Uztailak 16ko Karmen egunarekin batera ospatu zituzten Oriako jaiak

Larunbatean ospatu zituzten, Oria auzoan, Karmengo Ama jaiak. Goizetik gauera, ekitaldi ugariz beteriko festa egitaraua izan dute aurtengoan ere auzoan. Buruhandiak, haur eta gazteentzako tailerrak, jolasak, musika emanaldiak eta beste zenbait ekitaldiz gozatu ahal izan zuten herritarrek.

Karmengo Ama jaietako meza nagusia izan zen, larunbat eguerdian.

Buruhandiak, trikitilariak, haurrentzako tailer eta jolasak, meza nagusia eta hainbat musika emanaldi izan dira aurtengo Oriako Karmengo Ama jaietan, beste zenbait ekintzen artean. Larunbatean, goizean goiz eman zioten hasiera, ekitaldi ugariz betetako festa egitarauari Oriako bizilagunek. Adin eta gustu guztietarako hamaika ekintza izan ziren; Bilabonako trikitilariek lagundutako buruhandiek alaitu zuten auzoa goizean. Jarraian, haurrentzako tailerrak izan ziren Oria etorbidean eta eguerdian, 12:00etan puntuan, Karmengo kaperan, meza nagusia ospatu zen. Jende ugari bildu zen gainera elizkizunean. Ondoren, indarrak hartu asmoz, mokadutxo bat jateko tartea izan zen, Plazido Muxika plazan eta bertan ere, jende asko elkartu zen, giro eguzkitsu eta ederrean. Arratsaldean berriz, etxeko txiki eta gazteenen txanda izan zen; giro beroa freskatu asmoz, ur-jolasak eta puzgarriak izan zituzten, Bruneteneako lorategian. Arratsaldeko 17:00etan, dozena bat gaztek puzgarriak urez bete eta globo gerrari ekin zioten. Txikienak berriz, puzgarrietan saltoka ibili ziren. Gauean, musika emanaldiak izan ziren nagusi; Gotzon Dj eta Ibai Berriak berbena arduratu ziren festa goizaldera arte luzatzeaz.

Hurrengo Txintxarri-a uztailaren 27an argitaratuko dugu. Herriko informazio guztia *txintxarri.eus* atarian

UDALBATZARRA

Usurbili lur-eremuak emateko eskaera

Oroimen historikoa onartzeari buruzko erakunde adierazpena ere onartu zen

Lasarte-Oriako Udalbatzarrak ohiko batzarra egin zuen asteartean. Bi gai ziren gai zerrendan bata oroimen historikoari buruzkoa eta bestea Atsobakarren eraiki nahi zen futbol zelai eta atletismo pistei buruzkoa. Biak onartu ziren.

Asteartean burutu zen Udalbatzarreko saioan, Lasarte-Oriako Udalak herriko kirol instalakuntzak berritzeko pauso berria eman zuen PSE-EEk aurkeztutako mozioa onartuz. Alderdiek bat egin zuten, EHBildu izan ezik. Abstenitu egin zen.

PSE-EEk udalbatzarrean azaldu modura, Lasarte-Oriako Udal Kirol instalakuntzak txikiak geratu dira. Herritar eta kirol elkarteen beharrei irtenbidea emateko kiroldegi eta entrenamendu zelai berria eraiki behar da.

Futbol zelai berria Atsobakarreko parkean egin eta honi atletismo pista bat ere gehitu ahal zaiola aipatu zuten. Baina proiektua aurrera eraman ahal izateko, lur sailaren jabe den Usurbilgo Udalaren onespena behar da.

Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udalak Usurbilgo Udalari eskatuko dio Atsobakarreko lur-eremuak Lasarte-Oriaren esku utzi eta kirol instalakuntzak egin ahal izateko dagozkion hirigintza-irizpideak egin ditzan. Onespena lorturik, Udalak oinarrizko proiektua eta gauzatze proiektua martxan jartzea onartu du. Era berean, Usurbilgo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki honen berri emango diote.

Oroimen historikoa aitortu

Bestalde, Islada Ezkutatuak elkartearen eskaerari erantzunez, Udalbatzarrak 1936-39 urteen arteko guda eta ondorengo gatazka eta diktadurak ezarritako errepresioa jasan zuten pertsonei, herrikideei modu berezian, aitormen instituzionala adierazi zuen aho batez.

Usurbilgo Udalak Atsobakarren dituen lur-eremuetan egin nahi ditu kirol instalakuntzak.

Instituzioek eta gizarte demokratikoak giza sektore honekiko duen zor morala aitortu eta era berean, herritar horiei omenaldi publiko eta instituzionala egitea adostu zen. Islada Ezkutatuaren nahia da, "ekitaldi hau legaltasuna, aurrerabidea eta demokrazia defendatzeagatik jasan zituzten sufrimendu eta injustiziak arintzeko baliagarri izan dadila".

Gai hauetaz gain, PPko Alejandro Saenz zinegotziak urgentziaz eskatuta. Miguel Angel Blancoren heriotza gogora ekarri eta hau gaitzesteko minutuko isilunea egitea eztabaidatu zen.

PP eta PSE-EEren bozkekin aurrera atera zen eskaera. EAJ eta LOAD abstenitu egin ziren, EHBildu aurka agertu zen.

Honetaz gain, oposizioko alderdi eta herritarrek haien kezkak eta eskaerak egiteko tartea izan zuten.

Esate baterako, EHBilduk Eusko Jaurlaritzak ekainean errauste plantaren Ingurumen baimenari helegiteak egiteko Lasarte-Oria interesdun ez dela erantzun diola eta interesadun izateko bete behar dituen baldintzak zehaztu dizkiola jakitera eman eta Udalak interesdun modura kontuan izateko beste biderik hartuko duen jakin nahi izan zuen. Alkateak Eusko Jaurlaritzak Lasarte-Oriako Udala interesduntzat jotzeko pausoak emango dituela eta hau lortu ostean, helegitea jarriko dela adierazi zuen.

Gaixo dauden presoen egoera salatzeko ekitaldia

Osasungintzan diharduten Lasarte-Oriako 55 langilek berretsitako manifestua irakurri zuten larunbatean herriko Sare taldeko kideek Santa Barbarako ekitaldian.

Euskal presoekin kartzeletan osasun arloan ematen diren "eskubide urraketez" ohartarazi zuten.

Espainiako legeak ahalbidetzen du tratamendu egokia jaso ahal izateko, larri gaixorik dauden presoei baldintzapeko askatasuna ematea.

Gaur egun osasun arloan gertatzen diren hainbat egoera azpimarratu nahi izan zituzten honetan. Espainia eta Frantziako espetxeetan hamar euskal preso daude gaixotasun larri eta sendaezinekin, tartean Ibon Fernandez Iradi herritarra, esklerosi anizkoitza duena.

Osasun arloko langileek adierazi dute idatzian, "kalean egonik gaitz larri eta sendaezinak jasatea oso gogorra bada, irudika al dezakegu, esaterako, esklerosi anizkoitza, kardiopatia iskemikoa larria, nahasketa psikotikoak edo espondilitis ankilopoietikoa duten presoek jasaten duten sufrimendua? Egun, segurtasun arrazoiek lehentasuna dute osasun eskubidearen gainetik".

Horrela izanda, sendagilearen kontsultan kartzelaria aurrean egoteko agindua dago eta kanpoko konfiantzazko sendagileari kontsulta egiteko aukera "normalean ukatu egiten zaio, eta kontsultak ematen diren kasu bakanetan kartzelako sendagilea aurrean egon ohi da".

Ospitalera egin beharreko irteeren kasuan, "hilabete luze eta hainbat kasutan urteak ere atzeratzen dira. Horrela, gaixotasuna garaiz hartzeko denbora pasa eta gaitza oso aurreratua dagoenean ematen da diagnostikoa".

Frogak edo ebakuntzak egiterakoan, "oso ohikoa da presoa lotzea, nahiz eta poliziez inguratua egon. Osasuneko langile gisa askotan ikusi dugu presoentzat dagoen protokoloa ez betetzea".

Santa Barbaran egin zen larunbatean ekitaldi jendetsua.

Bukatzeko, manifestuan pertsona guztien osasunerako eskubidea eta gaixotasunen tratamendua zein zaintza ahalik eta era egokienean jasotzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

"Aipatutakoengatik euskal presoei ezartzen zaizkien salbuespeneko neurriekin amaitzea eta osasun arloan legeek diotena betetzea eskatzen dugu".

Ekitaldian bi bertso kantatu ziren Ibon Fernandez eta Garikoitz Arruarte gaixo dauden Lasarte-Oria eta Hernaniko presoak gogoratuz.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri
Erredakzioa:
Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.
txintxarri@txintxarri.eus
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

FESTAK

San Inazio jaiak Basaundin

Uztaileko azken asteburuan izango dira

Aurten ere Basaundiko bizilagunek jaiak ospatuko dituzte. Uztaileko azken asteburuan egingo dira, uztailak 30 eta 31n. Antolatzaileek prestatutako ekintza-egitarauan adin guztiei zuzendutako jarduerak egongo dira.

La Esperanza auzo elkarteko kideak eta Udal ordezkariak Oriako Jaietako aurkezpenean.

TXINTXARRI

Basaundiko bizilagunek euren jaiak ospatuko dituzte San Inazio egunaren bueltan. Horrela, aurten ekintza egitarau oparoa antolatu dute udalaren laguntzaz, uztailaren 30 eta 31n. Lehengo astean jai hauen eta Karmengo jaien aurkezpena egin zen.

Agerraldian Juan Rodriguez Oriako Jaietako batzordeko kideak Buruntz Azpi elkartearen lana azpimarratu eta urteetan jai egun hori mantentzeko egin duten lana gogora ekarri zuen.

Larunbatean, 16:30ean mus txapelketarekin hasiko dira jaiak. 17:00etan apar festa izango dute etxeko txikienek eta jarraian, ezkondu eta ezkogabeen arteko futbol partidaz gozatu ahal izango da frontoi ondoko kantxan. 19:30ean patata tortilla lehiaketa egingo da eta parte hartzaileek etxetik eraman beharko dute tortilla.

Musikarekin 20:00etan hasiko dira Basaundin, DJ saioa izango da plazan eta 22:00etan dantzaldia izango da Brunet-Enean Ibai Berriak taldearekin.

Igandean, San Inazio egunean berriz, kirolarekin hasteko aukera izango da. Martxa neurtua egingo da Basaundi plazatik abiatuta.

10:00etan Buruntz azpi elkarteak galeper botatzea egingo du eta 11:00etan haur jolasak egingo dira plazan eta bertan buruhandiak ibiliko dira.

11:30ean meza nagusia egingo da Karmengo kaperan eta 12:30ean bote eta toka txapelketak egingo dira. Bazkari herrikoia ere antolatu da Oriako frontoian egun honetan. Txartelak aurrez erosi ahal izango dira Buruntz-Azpi elkartean eta Txoko tabernan sustatzaileek aurreratu moduan.

Arratsaldean berriz, puzgarriak egongo dira haurrentzat baita merienda ere. Jaiari amaiera emateko, batukada herrikoia izango da.

Tortilla patata txapelketari dagokionez, zehaztapen bat egin zuen Juanek. "Etxean egindako tortilak izango dira epaituko direnak. Ez dugu kalean lehiaketa antolatzeko baliabiderik eta. Sariari dagokionez, Lasarte tabernan bi pertsonentzako menua izango da".

Honetaz gain, herritarrei jaiei amaiera emango dien batukada herrikoian parte hartzera dei egin zien. "Zartaginak, marakak edo soinua ateratzen duen edozer eraman dezakete batukadaren erritmoa jarraitzeko". Gainera, herritarrek Dinbi Banda batukada lagunduko dutela jakitera eman du.

Basaundiko bizilagunek jendea animatzen dute jaietara hurbildu eta festaz gozatzea.

ODOL EMAILEAK

Odol-ateratzerik ez da izango uztailean

Lasarte-Oriako Odol Emaileen elkarteak herritarrei jakinarazten die, hilabete honetan ez dela odol-ateratzerik izango hilabeteko azken astelehena Santiago eguna dela eta.

Abuztuan berriz, herritarrek bi egun izango dituzte odola eman ahal izateko, hilabeteko lehen egunean abuztuaren 1a astelehenean eta hilabeteko azken astelehenean, 29an.

Elkarteko kideek herritarrak gonbidatu nahi dituzte egun hauetan arratsaldeko 17:30etik 20:30era Osasun Zentrora hurbildu eta odola ematera. Izan ere, "udan odol beharra handitzen" baita.

ELKARRETARATZEA

Nizako atentatuari gaitzespena

Lasarte-Oriako Udalak ostegun gaueko Nizako atentatu terrorista –84 pertsona hil ziren bertan– gaitzetsi zuen ostiralean. Bost minutuko kontzentrazioa egin zuten udal ordezkariek eta zenbait herritarrek udaletxe zaharreko arkupeetan.

SASOETA

'Sasoeta sasoian' bizilagun elkartea aurkeztu dute Gaztelekuan

Zenbait auzotarren kezkak eta nahiak bultzatuta, auzo elkarte bat sortzearen ideiari forma ematen hasiak dira dagoeneko. Horrela, elkartearen prozesu administratiboa martxan jarrita, bizilagunekin lehenengo bilera izan zuten, ostiralean, etorkizuneko asmo eta proiektuen berri emateko.

Goiegiko Ibarrako etxebizitzak suspertzeko hitzarmena

Lasarte-Oriako Udalak eta Neinor Norte enpresak Goiegiko Ibarran prezio tasatuko 72 etxebizitza eraikitzeko obrei ekiteko aukera emango duen hitzarmen bat sinatu dute. Jesus Zaballos alkateak, Lasarte-Oriako Udalaren ordezkari gisa, eta Rafael Olabarrik, Neinor Norteren ordezkari gisa, hitzarmena sinatu zuten.

Jesus Zaballos alkateak azaldu zuenez, sinatze honi esker, aurreko jabearen ordainketa-etenaren ondoren eremu honetako garapenaren geldialdi-etapari eta aurreko Udal Gobernuaren ekintza ezari amaiera emango dio.

Baldintzak

Zaballosek azaldu modura, etxebizitza hauek BOE baten prezioaren bikoitza izango dute gehienez salneurri modura. Nolanahi ere, lehenengo hiru hilabeteetan, Lasarte-Orian erroldaturiko pertsonek aukera izango dute etxebizitza horiek BOE baten prezioaren halako 1,7ko prezioan eskuratzeko.

Neinor Norte eraikuntza enpresak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du Goiegiko Ibarra Urbanizatzeko Proiektuaren II. faseari dagozkion urbanizazio lanak erabat gauzatzeko.

Era berean, alkateak azpimarratu legez, lan hauekin batera, inguru horretan aurreikusiak zeuden kirol-hornidurak ere eraiki beharko ditu.

Izena ematea

Hitzarmen-sinatzearen ekitaldian azaldu legez, etxebizitza hauen merkaturatzea 36 etxebizitzako bi fasetan egingo da. Dagoeneko lehengo fasea martxan da.

Goegi Ibarrako bigarren fasea lur-eremu hauetan eraikiko da.

Orain hiru hilabeteko epean, irailaren 30a arte, promotoreak epe bat zabalduko du itunpeko 36 etxebizitza hauetako bat eskuratu nahi duten herritarrek eskabide-orriak aurkezteko. Behin epe hori bukatuta, udalera bidaliko du eskatzaileen behin-behineko zerrenda, eskatutako erroldа-betebeharra bete dela egiaztatzen aldera.

Jesus Zaballos alkateak agerraldian azaldu duenez, eskatzaileen zerrenda eskainitako itunpeko etxebizitzen kopurua baino handiagoa den kasuan, etxebizitzen adjudikazioa notario aurreko zozketa bidez egingo da udal bulegoetan. Eskatzaileen zerrenda eskainitako etxebizitzen kopurua baino txikiagoa bada, berriz, izen-emate ordenaren arabera adjudikatuko dira etxebizitzak.

Kasu batean zein bestean, bi zerrenda egingo dira, bata Lasarte-Orian erroldatuta daudela akreditatzen duten pertsonez osatua, eta bestea, izena emandako gainerakoekin. Bi zerrenda hauen artean, Lasarte-Orian erroldatuta daudenez osatuak izango du lehentasuna etxebizitzak adjudikatzerakoan.

Promozio honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Lasarte-Oriako Maite Betelu Gestoriara edo Donostiako Galdona higiezin enpresara hurbildu edo *www.neinorhomes.com* webean sar daitezke herritarrak.

Santa Ana eguna ospatzeko ekintza ugari

Santa Ana artisau azokan 52 postu izango dira Okendo eta Mercero plazan

Lasarte-Orian Santa Ana Eguna ospatzea ohitura da. Uztailaren 26an, egun osoko egitaraua egongo da, baina aurretik ere izango da ekintzarik. Ttakun kultur elkarteak, Sendoki elkarteak, Aterpea Merkatari elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatu dituzte egitasmo ezberdinak.

Santa Ana Parodiak emango dio amaiera ospakizunei. Urteko gertakizunei errepaso umoretsua egingo zaie. Akusatuak sutara botako al dituzte?

Txintxarri

Aurrekari modura, Zurmailu elkarteak egur-taila erakusketa jarri du Antonio Mercero gunean.

Asteartean ireki zituen ateak eta honetan elkarteko kideen lanak ikus daitezke.

Erakusketaz gozatzeko azken eguna artisau azoka eguna izango da.

Artisau azoka

Uztailaren 24an, igandea, artisau eta janari postuek Okendo eta Antonio Mercero plaza hartuko dituzte goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara.

Sendoki elkarteak antolatutako XXXI. Santa Ana artisau azoka honetan artisautza produktuak eta jakiak ikusi eta erosi ahalko dituzte herritarrek.

Sendokiko kideek jakinarazi dutenez, artisauen 25 postu izango dira Okendo plazan eta hauen artean, hainbat herritar izango dira.

Egur-tailak, larruzko produktuak, bitxiak, zilarrezko produktuak, koadernaketa, alpargatak, otarrak... izango dira postuetan. Gainera, artisau batzuk zuzenean lanean ikusteko aukera ere izango da.

Udaletxeko arkupetan, Zurmailu elkarteko kideak izango dira lanean. Biyak Bat elkarteko kideen eskulanak ikusgai izango dira eta 13 emakume izango dira ehozirilanak egiten.

Bestetik, gazta, ogia, patea, marmeladak, hestekiak, euskal patelak, eztia, gozoak... 27 jaki postu izango dira Antonio Mercero plazan herritarren gosea lasaitu edo areagotzeko.

Berrikuntzak eta omenaldia

Berrikuntza bat ere izango da egitarauan, Hipodromoko mendeurrena dela eta. 3 eta 10 urte arteko haurrentzat poneyak egongo dira goizean, 11:00etatik 14:00etara.

Hau guztiaz gain, ohiturari jarraikiz, euskal sukaldari bat omenduko dute azokako antolatzaileek 12:00etan izango da Okendo plazan.

Aurten Andoni Luis Aduriz izango da Cesar Bozal herritarraren labana jasoko duen sukaldaria.

Santa Ana Eguna

Artisau azokatik bi egunera, Santa Ana eguna izango da eta 11:00etan, hasiko dira ospakizunak.

Ama Brigitarren komentuko kaperako mezaren ondoren Ttakun Kultur elkarteak luntxa eskainiko du plazan. San Pedro elizako kanpaiek eguerdia jotzearekin batera, Erketz EDT-ko kideek dantza egingo dute Santa Ana karkabaren aurrean.

Pala txapelketa

Arratsaldean, Loidi Barren frontoian, izango da hitzordua Santa Ana Pala txapelketako final handia jokatuko baita.

Pala zaletuek, 17:15etatik aurrera, bi partida ikusteko aukera izango dute.

Lehenik, 3. postua egongo da jokoan. Hau amaitzean berriz, finala.

Oraindik partidatako bikoteak erabakitzeko daude. Izan ere, aste honetan, final erdiak jokatuko baitira. Hauek amaitzean, jakingo dira txapela jokatuko duten bikoteen izenak.

Umorea nagusi

Eta egunari amaiera emateko, 22:30ak aldera, umorea izango da nagusi Okendo plazan. Lasarte-Orian gertatu edo gure herrian eragina izan duten urteko pasadizoei errepasoa egingo dio Santa Ana Parodian.

Antolatzaileek ez dute ezer aurreratu nahi izan baina azaldu dutenez, herritarrek ederki barre egingo dute bi akusatuek sortutako arazoak jakitean.

Aurretik, indarrak hartzeko asmoz, Parodiako aktoreek Intza elkartean afaldu eta herriko kaleetatik barrena desfilea egingo dute, herritarrei parodiara hurbiltzeko gonbita eginez. Kontuz ibili suhiltzaileekin!!

Kale Nagusia, Ola Kalea, Zumaburu kalea, Kale Nagusia Tajamarreraino eta Hipodromo etorbidetik Okendo plazarara izango da ibilbidea.

Pintxo gozoak

Hau guztiaz gain, egun osoan zehar, Aterpea Merkatari elkarteko zortzi ostalarik Santa Ana pintxoa eskainiko dute.

Bakailao eta piperrekin prestatutako pintxo izango da eta bakoitzak bere ukitu berezia emango dio. Pintxo gozoa honako establizimenduetan eskainiko da: Arkupe taberna, Lasarte taberna, Viña Del Mar, Buenetxea kafe-taberna, Yolanda taberna, Izurde taberna, Santxo taberna eta Goiegi jatetxea.

Aterpeako lagunek herritarrak gonbidatzen dituzte pintxoak dastatzera.

Parodiarako aktoreak

Hau guztiaz gain, Santa Ana Parodian parte hartu nahi duten herritarrei deialdia egiten die Ttakun Kultur elkarteak.

Parodia prestatzeko entseguak gaurtik ostiralera izango direla aurreratu dute antolatzaileek, arratsaldeko 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur etxean.

Honetan parte hartu nahi duten herritarrek bi aukera dituzte, *kultura@ttakun.eus* helbidera idatzi edo lehenengo entsegura ager daitezke.

Zurmailu elkarteko lagunen lanak ikusgai izango dira Artisautza azoka eguna barne Antonio Mercero aretoan.

25 artisau eta 27 janari postu izango dira igande honetan ospatuko den XXXI. artisau azokan.

Hasi da Kultur Kale zikloa

Psicoacoustic-ena izan da lehen emanaldia; irailera bitarte beste sei antolatu dituzte

Musika estilo desberdinak entzungo dira herriko auzoetan udaran zehar. Udalaren Gazteria eta Jaiak batzordeak eta Xpressionk kultur librea elkartearen eskutik Kultur Kale zikloaz gozatuko dute herritarrek. Psicoacoustic herriko taldeak pasa den larunbatean eskainitako emanaldia izan da egitarauko lehena; uztail, abuztu eta irailean zehar beste sei emanaldi prestatu dituzte.

Lasarte-Oriako Psicoacustic taldeak abiatu du Kultur Kale zikloa. Argazkian, larunbateko kontzertuaren une bat.

TXINTXARRI

Psicoacustik herriko musika taldeak abiarazi du Kultur Kale Zikloa. Larunbatean eskaini zuen musika emanaldia hirukoteak, iluntzeko 20:00etan, Orian. 'The Beatles' taldearen doinuak entzun ahal izan ziren kontzertuan.

Sei emanaldi gehiago

Irailera arte beste sei emanaldiz gozatuko dute herritarrek Kultur Kale zikloaren baitan. Iragan larunbatekoaz gain, uztailerako beste bi programatu dituzte. Donostiako Jazzaldiarekin bat eginez, jazz doinuak entzungo dira gure herrian ere hilaren 23an, Zumaburuko Andapa kalean, Igor Letona Jazz Quartet taldearen eskutik. 30ean berriz, Iker Lauroba abeslariak Tximistarreta parkean eskainiko du kontzertua.

Abuztuan Okendo plaza bihurtuko da Kultur Kaleren epizentro. Bi emanaldi eskainiko dira hilabete horretan: 6an Urko Menaia donostiarrak joko du; 27an, Underneed taldeak.

Arestian esan bezala, irailean bukatuko da aurtengo Kultur Kale. PJ Kahuna&Sara Grajal bikoteak Tximistarreta parkea girotuko du 3an, eta, azkenik, Hugo Silveira&Naldo Gomes brasildarrek Urbarte parkean joko dute, 10ean.

Aipatu emanaldi guztiak arratsaldeko zortzietan hasiko dira. Xpressionk elkarteko kide Jokin Telleriak pasa den asteleheneko aurkezpen ekitaldian zehaztu zuenez, "estilo askotako musikariei" eman nahi zaie kantxa Kultur Kalen: "Egitasmoak ongi funtzionatzea espero dugu".

Dezentralizazioa apustu

Telleriaz gain, Jesus Zaballos alkateak eta Txus Alonso Gazteria eta Jaiak batzordeko buruak hartu zuten parte aurkezpen ekitaldian. Sasoetako Gaztelekua aukeratu zuten prentsaurrekoa egiteko.

Alonsok nabarmendu zuen aurtengo Kultur Kale Urbarte auzora ere zabaldu dela: "Kultura eskaintza deszentralizatzea da Udalaren apustua, eta horretan gabiltza, proiektuak auzoz auzo zabaltzen".

Zikloko kontzertuen hasiera ordua da beste berrikuntza bat. Aurreko edizioetakoak baino ordu erdi beranduago hasiko dira guztiak: arratsaldeko zortzietan. "Emanaldiak beranduago hastea erabaki dugu, arratsaldean planak dituzten herritarrek horiez gozatzera garaiz iritsi ahal izan daitezen", azaldu zuen batzordeburuak.

Jesus Zaballos alkateak Kultur Kaleren errepaso historikoa egin zuen: "Herriko zenbait tabernatan kontzertuak antolatzen ziren hasieran; ondoren, Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian egiten ziren emanaldiak, bertako taberna institutuko azken urteko ikasleek kudeatzen zutelarik. Azkenengo urteetan, egitasmo are irekiagoa egin dugu, kultura kaleetara ateraz, eskaintzaren deszentralizazioa ardatz eta helburu gisa hartuz".

Era berean, asteleheneko ekitaldian, Zaballosek azpimarratu zuen herritarren artean "oso harrera ona" eduki duela Kultur Kalek urteotan: "Lasarteoriatarrek barneratu egin dute egitasmoa; ea aurtengo egitaraua ere euren gustukoa den. Funtsean, kultura ahalik eta eskuragarrien bilakatzea da xedea, eskaintza on bat doan kontsumitzeko aukera emanez herritarrei".

Saharako lagunei harrera

Udalak lagunduta, lau neska eta lau mutil saharar hartu dira herrian Oporrak Bakean programaren barruan.

10 eta 12 urteko haur hauek, uztailaren 2an iritsi ziren eta abuztuaren 31ra arte egongo dira herriko familiekin. Asteartean egin zieten harrera udal ordezkari eta txokoetako lagunek.

Jesus Zaballos alkateak, korporazioko hainbat kiderekin, ongi etorria eman zien haurrei batzar aretoan.

Honek bederatzi harrera -familiei bereziki eman zizkien eskerrak, "zuek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako programa honi eustea, funtsezkoak zarete".

Nazha, 12 urteko neskatoa, Mrabih 13 urteko mutikoa, Abdalahi 12 urteko mutikoa, Hilifa 11 urteko mutikoa, Saida 12 urteko neskatoa, Mattu 11 urteko neskatoa eta Whaba 10 urteko neskatoa dira aurten gure artean oporrak pasako dituztenak. Azken biak lehenengo aldiz daude hemen, gainontzekoek berriz, errepikatu egin dute esperientzia. Ekitaldian, bi haurrek kale egin zuten, udalak hainbat opari eman zizkien eta txokoetako lagunek ere eman zizkieten kamiseta dotore batzuk.

Pozik hartu zituzten haurrek opariak eta eskerrak eman zituzten.

Guztiak udako txokoetan parte hartzen ari dira. Hau dela eta, harrera ekitaldiaren ostean, txokotako haurrek sorpresa prestatuta eta agurra dantzatu zieten baita 'Maite Zaitut' pailazoen kanta ezaguna dantzatu ere festa giroan bertaratutakoak murgilduz.

Diruz lagunduta

Udalak, programaren arduradun den aldetik, txokoetako eta Kiroldegiko igeriketa ikastaroetako parte-hartzea kudeatu eta diruz laguntzen du.

MUGI txartela erabiltzeko erraztasunak ere eman dizkie.

Horretaz gain, programaren barruan daude osasun-azterketak eta azterketa odontologikoak egitea euren egonaldi honetan.

Saharar herriarekiko elkartasuna adierazteko proiektua da hau udalarentzat. "Haur hauei gurekin bizitzeko aukera emanez, haien osasun-egoera hobetzen laguntzen diegu, desertuko udatik babesten (non tenperatura 60ºra iristen baita), elikadura orekatu bat lortzen, haien kultura nahiz ohiturak partekatzen eta lagun berriak egiten".

Ederki pasa zuten haurrek Txokoetako lagunek egindako harreran.

ESKUBALOIA.-

Rioko Jokoetara joateko txartelaren bila

Nely Carla Alberto eskubaloi jokalaria Espainiako selekzioaren aurredeialdian dago murgilduta

Lasarte-Orian egon berri da Nely Carla Alberto eskubaloi jokalaria, ia astebetez atseden hartzen. Familia, lagunak, senarra...denekin egoteko baliatu ditu egun libre horiek. Tartetxo batean ez bueltatzea espero du, Espainiarekin kontzentratuta baitago, Rioko Jokoetara joateko aurredeialdian murgilduta.

IÑIGO GONZALEZ

Hemezortzi jokalariren aurredeialdian sartzea funtsezkoa da, jakina, baina orain dator zailena: hamalauko behin betiko zerrendan sartzea. Ni buru-belarri ari naiz lanean horretarako". Nely Carla Albertok argi hitz egiten du; abuztuan hasiko diren Rioko Olinpiar Jokoetara joatea du helburu.

Espainiarekin kontzentratuta egoteko hautatuak izan diren jokalariek datorren aste hasieran jakingo dute Riorako txartela edukiko duten edo ez. Asteburuan 4 Nazioen Txapelketa jokatuko dute Norvegian.

Duela hamar urtetik bizi da Nely Carla Alberto herrian, senarrarekin. Joan den asteko egun libre batzuk aprobetxatu zituen bueltan etorri eta atseden hartzeko. Tartetxo bat ere eskaini zion TXINTXARRIri.

Zer moduz doa Joko Olinpikoetarako prestaketa?

Momentuz oso ongi. Andorran hamar eguneko egonaldia egin genuen hilabete hasieran. Horretan, alor fisikoa landu genuen batez ere. Orain, fisikoa eta taktika ari gara lantzen. Eta, asteburu honetan, 4 Nazioen txapelketa jokatuko dugu Norvegian, joko-erritmoa hartzen hasteko.

Hamalau jokalariko behin betiko zerrendan zure izena egongo dela uste duzu?

Nire esku dagoen guztia egingo dut hori lortzeko, besterik ezin dezaket egin, azkeneko erabakia prestatzaileak hartuko baitu. Buru-belarri ari naiz lanean, sasoitsu nago eta oso motibatuta.

Hemezortzi jokalarik ekin genion aurredeialdiko kontzentrazioari hilabete hasieran. Hamalaura iritsi arte deskarteak egingo ditu hautatzaileak; ikusiko dugu zerrenda horretan sartzen naizen ala ez.

Rion ez da batere samurra izango hasiera. Arerio oso gogorren kontra jokatu beharko du taldeak.

Bai, multzo zaila da, hori ezin daiteke ukatu. Dena den, bizitza honetan ezer ez da erraza, eta dominak irabazteko lehian egoteko, onenekin neurtu behar dituzu indarrak lehenago edo beranduago.

Hasiera zaila edukitzeak baditu abantailak: aurrera egitea lortuz gero, final laurdenetako neurketa errazagoa izan daiteke. Seitik lau talde sailkatzen dira hurrengo fasera, eta lor dezakegu helburu hori. Gainera, lehen fase horretan ongi hasten bagara, hurrengo partiduak are konfiantza gehiagorekin prestatuko ditugu.

Errumaniak, Brasilek, Norvegiak, Angolak eta Montenegrok [lehen multzoko arerioak hauek dira] gogotik izerditu beharko dute gu garaitzeko. Debuta abuztuaren 6an egingo dugu Montenegroren kontra.

Brontzezko domina irabazi zenuten Londresen 2012an. Errepikatu ahalko duzue balentria hori?

Eta zergatik ez? Dominengatik borroka egiteko ari gara prestatzen. Urteotan irabazi ditugu zilar eta brontze batzuk; bada garaia urrea lortzeko. Dena den, beste edozein domina kolkoratzea ere sinatuko nuke, nola ez!

Nola iristen da Nely Carla Alberto denboraldiaren fase honetara?

Lehen aipatu dudan bezala, oso motibatuta. Denboraldia gorabeheratsua izan da, iazko azaroan kiebra jo baitzuen nire taldeak [Union Begles-Bordeaux-Mios Biganos]. Zorionez, Brest Bretagne taldeak eskaintza egin zidan eta denboraldi bikaina egin dugu: Frantziako Lehen Mailara igo eta Kopa irabazi dugu. Historian aurrenekoz, bigarren mailako talde batek titulu hori irabazi du. Gazi-gozoa izan da urtea: alde txarra, nire taldeak kiebra jo izana; ona, tituluak irabazi ahal izatea Brestekin.

Aurtengo denboraldia Brest Bretagne taldean bukatu du Nely Carlak.

33 urte bete berriak dituzu. Etorkizunera begira zeintzuk dira zure asmoak?

Eskubaloian jokatzen jarraitzeko indartsu eta gogotsu sentitzen naiz. Bi urteko kontratu bat sinatu berri dut Frantziako beste talde batekin; urtebete gehiagoz luzatzeko aukera edukiko genuke 2018. urtean. Beraz, inork ez nazala behar baino lehen kantxetatik erretira.

Hainbat urte daramatzazu Lasarte-Orian bizitzen. Etorri ahal izaten duzunean, nolakoa da zure errutina?

Duela hamar urte hasi nintzen egun senarra dudanarekin ateratzen. Orduz geroztik bizi naiz herrian.

Egun libreak hartzen ditudanean senarra eta txakurrarekin egotea gustatzen zait, kuadrilarekin planak egitea, familiarekin egotea... Askotan gertatzen zaidana da bizpahiru egunez etortzen naizela, eta tarte horretan egon behar izaten dudala denekin. Hori ez da eragozpen, ordea; gustura egiten dut. Asko babesten eta laguntzen nautela sentitzen dut.

MENDI LASTERKETAK.-

Herritar ugari Marimurumendin

Hainbat lasterkari lasarteoriatar Beasain aldean izan ziren Marimurumendi maratoia jokatzen uztailaren 10ean. 42 kilometro pasatxoko ibilbidea osatu behar izan zuten.

Zazpi herritarrek ekin zioten probari, baina bost besterik ez ziren helmugaratu. Javier Olazagoitia izan zen bizkorrena: 46. postuan sailkatu zen, 4:59:46ko denborarekin. Olazagoitiarekin ia-ia batera iritsi zen Jose Ignacio Elvira; bi segundo gehiago behar izan zituen proba bukatzeko. Jose Ramon Mendizabal eta Joseba Iparraguirre herritarrak elkarrekin iritsi ziren: 79. eta 80. izan ziren hurrenez hurren, 5:32:12 izanik amaiera-denbora. Iraitz Pikabea izan zen helmugaratzea lortu zuen bosgarren herritarra: 177. postuan iritsi zen, 7:38:43ko denborarekin.

Irudian, Marimurumendi proba egitera joan ziren zazpi herritarrak.

Peio Fadrique eta Josean Hernandezek ere ekin zioten probari, baina ezin izan zuten ibilbidea bukatu. Lehenengoak proban ez jarraitzea erabaki zuen 25. kilometroan. Pixka bat lehenxeago, 23.ean, erori egin zen Hernandez, eta bizkarrean kolpe gogorra hartuta erretiratu egin zen.

TRIATLOIA.-

Trinko taldeko kideak Gasteizen eta Deban

Udako oporraldian murgilduta egonda ere, hainbat kirol diziplinatan egurrean jarraitzen dute gure kirolariek. Esaterako, Trinko Lasarte-Oria triatloi taldeko kideek.

Leo Juarez eta Javi Lopezek denboraldiko helburua ederki bete zuten Gasteizko Iron Man erdian. Proba gogor bati egin zioten aurre: 1,9 kilometro igerian, 93 bizikletan eta 21 korrika. Juarezek 5:14:16ko denboran bota zuen proba, 393. helmugaratuta; Lopez zazpi minutura iritsi zen, 470.ean.

Asteburu bat lehenago, uztailaren 2an, Lasarte-Oria oraindik festetan murgilduta zegoenean, Andoni Salsamendik Debako triatloia jokatu zuen, sprint distantziakoa: 750 metro igerian, 25 bizikletan eta 5,2 korrika. 112. postuan helmugaratu zen herritarra; 01:27:13ko denboran geratu zuen kronometroa.

Leo Juarez eta Javi Lopez. TRINKO

Andoni Salsamendi. TRINKO

Agenda

Osteguna, 22:15ean, Okendo plaza

Harresiak apurtuz

'Bèlier familia' filma eskainiko da udako zinea zikloan. Gorrak dira Belier familiako kideak, Paula gaztetxoa izan ezik. 16 urteko neska hori ezinbestekoa zaie familiako beste kideei, itzultzailearena egiten baitu, besteak beste sendiaren baserriko tratuetan. Baina, egun batean, Paularen musika irakasleak Radio Franceko kantu lehiaketa batean parte hartzera bultzatuko du neska, abesteko dohain handia duela ikusita. Horretarako, baserritik alde egin beharko du. Gazteleraz.

Lasarte-Oria

Kultura auzoetara

Zabaleta auzoa
Ostirala, 18:00etan
Lur Usabiagak ipuin kontalariren saioa.

Zabaleta auzoa
Larunbata, 11:00etan
Birziklatutako zorroak egiteko tailerra. Bi tetrabrik eraman beharko dira.

Jaizkibel Plaza
Ostirala 29, 18:00etan
Lur Usabiaga ipuin kontalariak haurrei zuzendutako saioa egingo du.

Jaizkibel Plaza
Larunbata 30, 11:00etan
Frutak izeneko tailerra egingo da.

Musika

Isla Plaza
Larunbata, 20:00etan
Kultur Kale zikloaren baitan Igor Letona Jazz Quartet taldearen kontzertuaz gozatu ahalko da.

Tximistarreta Parkea
Larunbata 30, 20:00etan
Iker Laurobak bakarkako saioa eskainiko du Kultur Kale zikloaren baitan.

Artisau azoka

Okendo plaza eta Antonio Mercero Plaza
Igandea, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
Urtero legez, XXXI. Santa Ana Artisau azoka ospatuko da. Sendoki Kultur Batzordeak antolatuta.

Erakusketa

Antonio Mercero aretoa
Uztailaren 24ra arte, 19:00etatik 21:00etara
Zurmailu elkarteko kideen egur tailen erakusketa ikusgai izango da.

Santa Ana eguna

Santa Ana Karkaba eta Okendo plaza
Asteartea 26, egun osoan
Lasarte-Oriako erdigunean Santa Ana eguna ospatuko da. Eguerdian, meza eta karkabaren aurrean dantza egingo dute Erketz EDT-ko lagunek. Gauean, noski, urteroko gertakizunei errepasoa emango zaie Santa Ana eguneko parodian.

Antzerkia

Okendo Plaza
Ostirala 29, 20:00etan
Deabru Beltzak taldeak 'Su á feu' lana ekarriko du Lasarte-Oriara. Kaleko dantzan, suan eta erritmoan oinarritzen da 'Su á feu', kalea ikuspuntu berri eta fantastiko batetik miatzen du. Etorkizunekoak diruditen pertsonai bitxi batzuk, kalea hartzen dute eta egunerokotasuna munduko toki desberdinetako erritmoekin eta su primitiboarekin nahasten dute.

San Inazio eguna

Basaundi bailara
Larunbata 30 eta Igandea 31
Basaundi auzoko San Inazio jaiak ospatuko dira La Esperanza auzo elkarteak eta Buruntz Azpi elkarteak Udalaren laguntzaz antolatuta. Haur, heldu. zein gazteei zuzendutako ekintzak izango dira. Hala nola, apar festa, Tortila patata lehiaketa, martxa erregulatua, bote eta toka txapelketa, haur jolasak edo Dj eta berbena.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Lasarte-Oriako Udalaren jokaera azaleratuz

Lasarte-Oriako herritarrei

Idatzi honen bidez gure elkarteak azken hilabeteetan Lasarte-Oriako Udalarekin bizitako egoera bat azaleratu nahiko luke.

Gehienok jakingo duzuen moduan, Lasarte-Orian kokaturiko irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara, batukada emanaldiak eskaintzen dituena.

Ezagutzen gaituzuenok, ondo baino hobeto jakingo duzue oso aktiboak garela eta, horren ondorioz, 2015eko irailean gure emanaldiak promozionatzeko bideo bat prestatzea erabaki genuen Urteko Batzar Orokorrean.

Hori dela eta, martxa hartu eta bideoa grabatzeko behar genituen baliabideetan pentsatzen hasi ginen. Horien artean, grabazioa egiteko espazioa zegoen, noski.

Herriko Udalarekin harremanetan jarri eta, baldintzak ondo ezagutu ondoren (prezioa barne), kultur etxeko areto nagusia erabili ahal izateko eskaera egin genuen irailean bertan.

Behin prozesu hori burututa, Udalaren erantzun azkarra jaso genuen, guk eskaturiko egunean (azaroak 19) aretoa libre ez zegoela adieraziz. Hori dela eta, data berria zehazteko Juantxi Ugarte (Lasarte-Oriako Udaleko kultur teknikaria) eta Xabier Goitiarekin (Kultur Etxeko burua) hitz egin genuen. Hauekin adostuta, data berria finkatu genuen, 2016ko urtarrilaren 16a.

Garrantzitsua iruditzen zaigu argi adieraztea egun horretan bertan Udaleko langileek oso argi esan zigutela, 2016ra begira agian kultur etxeko baliabideak erabiltzeko araudia aldatuko zela, honek prezioan eragina izan zezakeelarik.

Gauzak honela, urtarrileko grabazioa burutu baino lehen, araudia aldatuko

balitz, Udaletxeak taldeari abisua pasako liokeela hitzartu genuen, gukbaldintza berriak aztertu eta espazioaren alokairuarekin aurrera egin nahi genuen ala ez erabakitzeko.

2016ko lehen hilabetea iritsi eta, Udalaren berririk ez genuenez, aurreko baldintza berdinak mantentzen zirela ulertu genuen. Beraz, grabazioa egin behar genuen aste horretan bertan bi aldiz gerturatu ginen kultur etxera grabazioa egiteko behar genituen baliabide teknikoen inguruan hitz egiteko. Bertan, inork ez zigun araudi berriaren inguruko aipamenik egin.

Prozesuak aurrera jarraitu zuen eta, hitzartu bezala, urtarrilaren 16ean bideoaren grabazioa egin genuen kultur etxean. Ohikoa den bezala, handik hiru astetara, Udalaren faktura jaso genuen. Gure harridurarako, Udalak 2015ean zehazturiko zenbatekoaren bikoitzari zegokion faktura igorri zigula ikusi genuen momentu horretan.

Faktura aztertu ondoren, egoera argitzeko kultur etxeko buruari, Xabier Goitiari, idatzi bat bidali genion. Hau jaso eta berehala erantzun bat eman zigun honek, gutuna egoki jaso zuela adieraziz, araudi fiskal berria zela eta prezioak aldatu zirela azalduz, eta ahalik eta azkarren erantzun formal bat emango zigula esanez.

Handik aste batzuetara, erantzun formal gabe jarraitzen genuela ikusirik, herriko alkate den Jesus Zaballos-ekin hitzordua eskatu genuen. Bertan, egoera guztia azaldu eta gaia aztertuko zuela hitz eman zigun. Hala ere, araudi berria 2015eko abenduaren 5ean onartua izan zela aipatu zigun ere, handik aste betera Udaleko web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurki genezakeelarik.

Horren ostean, astebeteko epean erantzun formala jaso genuen, igorritako faktura guztiz ordaindu behar genuela aipatuz, 2015ean aurreikusitako aurrekontuaren bikoitza. Pentsa dezakezuen moduan, taldea ez zegoen ados Udalaren erabakiarekin baina, hala ere, egun horretan bertan faktura ordaindu genuen.

Gauzak honela, idatzi honen bidez gure elkarteari gertatutakoa mahai gainean ipini nahi izan dugu, herritar guztiek egoeraren berri izan eta Udalaren jokaera eta erabakia salatzeko.

Ez zaigu bidezkoa iruditzen instituzio publiko batek, bere komunikazio gabezia dela eta, akatsa onartu arren (alkateak aitortu zuen kultur teknikariak aldaketa jakinarazi behar zigula aurretiaz), guk beraiengatik ordaindu behar izatea. Argi dugu hau instituzio pribatu batean onartezina izango litzatekeela.

Udaletxeak herria babesteko daude eta ez trabak ipintzeko.

Dinbi Banda aisialdi elkartea

Udako Txokoetako txikiek ederki ospatu zuten San Fermin eguna. Zezenaren aurrean lasterketa ugari egin zituzten.

Uda primeran gozatuz

Udako Txokoak eta kanpaldiak martxan daude

Uztaila erdialdean gaude eta Udako Txokoen uztaileko txanda ekuatorera iritsi da. Honetaz gain, Donemiliagan edo Kostaldean zeuden gazteak etxera bueltatu eta beste batzuk, Lapurdin edo Larraul eta Albeniz bidean daude. Abentura asko bizi dituzte eta beste horren beste bizi beharko dituzte.

Udako Txokoetako haurrek abentura ugari bizi dituzte lehenengo aste hauetan.

Txikienek San Fermin ospatu zuten Okendo plazan. Lehen txupinaren soinua entzun eta zuri eta gorriz jantzita, zezenengandik ihesi ibili ziren gaztetxoak.

Xumela koruaren bisita ere jaso zuten. Belaunaldi ezberdinen ahotsak batera entzuteko aukera izan zen. Guztiek doinu ezagunak abestu zituzten, hala nola, 'Txiki txikia', 'Han zeuden' edo 'Ran rober ran'.

Txaranga eta Ospitur ekintzekin ospakizun ezberdinak ezagutu dituzte eta Zubietara edo Txiki-Guayra egin dituzte irteerak.

Ertainek kirola egin dute nagusiki eta igerilekuan ederki gozatu dute. Altxorraren bila ere ibili dira.

Gaztetxoenek 'Euritan dantzan' egin zuten uretako jolasekin. Surf-a edo ipar-martxa probatu ahal izan zituzten. Bigarren hau Ostadarreko ipar-martxa taldearen eskutik. Goitik behera zikindu ziren pringe egunean eta Saharako haurrei harrera ere egin zieten. Zarautz, Getaria eta Gamarrako igerilekuetan izan dira egun pasa.

Oraindik bi aste geratzen dira. Ekintza eta irteera pila dituzte eta aurreratu digutenez, azken asteko jaialdiak prestatzen hasiak dira.

Etxetik kanpo

Hau guztiaz gain, etxetik kanpo egun batzuk igarotzeko aukera ere izan dute gazteek.

Donemiliagara joan zirenak dagoeneko bueltatu dira. Altsasun hiru egun egin eta gero, Garaion geldialdia egin eta Donemiliagara egin zuten. Bertan hamaika ekintza burutu dituzte.

Gaurtik aurrera, berriz, Larraul edo Albenizen bizipen ugari izango dituzte beste talde batzuk.

Kostan zehar

Eta ezin ahaztu, kanpaldietara joan diren gazteak ere.

Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldea ezagutu dute DBH1 eta 2ko gazteek lehen hamabostaldian. Zaharrenak, aldiz, atzo atera ziren Iparraldera. Bidaian Lapurdiko herrixkak ezagutuko dituzte.

DBH1 eta 2. mailako gazteak kostaldeko abentura hasi baino lehenagoko irudian.

Gazteak altxoarren bila atera ziren, baina euriarengatik ekintza bertan behera geratu zen.

Donemiliagara joan ziren gaztetxoak ederki izan ziren Altsasun eta Garaion ere.

Xumela koruko kideek eta haurrek ederki gozatu zuten doinu ezagunak kantatuaz.

Udako Txokoetako lagunak bukaera jaialdia prestatzen hasi dira. Ostiralean, 'Ospitour' grabaketa egin zuten.